




*15 urte saharar herriarekin elkartasunean  
15 años de solidaridad con el pueblo saharawi*

Tolosaldea Sahararekin elkarteak 2000. urtean sortu zen saharar herriari laguntzeko gogoz.

Urte guzti hauetan proiektu ugari jarri ditugu martxan: elkartasun bilketak, haurren harrera programak, maiatza borrokan bezalako jardunaldiak (hitzaldiak, bideo proiektzioak, erakustaldiak, erresistentzia haimak...).

Guretzat garrantzitsuenetako bat azken urte hauetan Saharako Lurralde Askatueta Midyick herrian aurrera eramán dugun proiektua izan da.



Saharar biztanlea hiru zonaldeetan bizitzera behartuak izan dira 1975 urtetik on. Marokok ilegalki okupaturiko lurraldean, gerratearen ostean Fronte POLISARIOaren eskuetan geratu zen lurralde askatueta eta Argelian Tindouf hiriburutik gertu dauden Saharar Errefuxiatu kanpalekuetan.

Midyick herria, esan bezala, Mendebaldeko Sahara Lurralde Askatua dago. Beste herrietatik oso urrun dago eta bertan nomada bezala bizi diren sahararrek, zenbait eraikuntza behar zituztela adierazi zuten. Lurralde Askatua denez, herri horiek bertan iraungo dute, eta hortaz eraikuntza horiek ere bertan egongo direla pentsatzen da.



*15 urte saharar herriarekin elkartasunean  
15 años de solidaridad con el pueblo saharawi*

Beharrezkotzat jotzen ziren eraikuntzak, lehen hezkuntzako ikastetxea eta anbulategia ziren.

Ikastetxea hiru fasetan eraiki zen, 45 ikasleentzako ikasgelak, sukaldea eta komunak. Bigarren fasean jangela, irakasleentzako gela eta bilategia. Eta hirugarren fasean argi indarra landu zen.

Hori bukatuta eta eskolara joaten zen ikasle kopurua kontutan hartuta beste bi gela eraiki ziren.

Horrela gutxi gora behera 90 ikasleentzako tokia sortu delarik.

Anbulategia lehen mailako zauriak sendatzeko tokia izango zela pentsatu zen hasieran, baina beste herrietatik Midyick herrira dagoen distantzia kontutan harturik beste zenbait zehaztapen izan behar zituela konturatu ziren, horrela Ospitala eraiki zen azkean.

Bukatzeko Midyick herriko biztanleak nomadak direnez, haurrak eskolara eramateko edota gaixoak ospitalera eramateko autoa behar zutela adierazi zuten.

Guzti hau Tolosaldeako, Gipuzkoako banako bakoitzaren laguntzari esker gauzatu izan da, Laskorain Ikastola izan da laguntzarik handiena eman duena, baina horretaz gain Lasarteko Udala, Tolosako Udala... eta aipatzean gehiegi luzatuko litzakeen zerrenda osatu ahalko genuke guzti hau aurrera eramaten lagundu duzuen guztiak aipatzeko. Zuok badakizue nortzuk zareten eta benetan mila esker guzti hau sortzen laguntzeagatik.



150 Sq6

15 urte saharar herriarekin elkartasunean  
15 años de solidaridad con el pueblo saharawi

Ikastetxea:



Ospitala:



Garraioa:





*15 urte saharar herriarekin elkartzunean  
15 años de solidaridad con el pueblo saharawi*



Eraikuntzak bukatuak daude, baina material falta handia dago, elikadura, arropa, eskolako materiala, botikak...

2015ean Tolosaldea Sahararekin elkarteak 15 urte betetzen ditu, eta gure proiektua borobiltzeko asmoz material guzti hori Midyickera eramatea da.

Maiatzan Alikateruntz aterako litzakeen, eta handik Argeliara zuzenduko litzakeen trailer bat bidali nahi dugu, Tindoufetik Midyickera joango litzatekeelarik.

Trailer horretan aurretik aipatutako material guztia bidali nahiko genuke. Horretarako orain hasi eta Martxoak 1 arte luzatuko den elkartasun bilketa jarriko dugu martxan.

Bilketa ikastetxeetan, udaletxeetan, kultur etxeetan, supermerkatuetan... izatea nahiko genuke.

Horretarako zuen guztion laguntza beharrezkoa izango delakoan.

Honakoak dira bilduko diren gauzak:

- |                            |                           |
|----------------------------|---------------------------|
| - ELIKADURAK               | - GARBIKETA               |
| - Arroza                   | PRODUKTUAK:               |
| - Pasta                    | - Konpresak               |
| - Azukrea                  | - Haurrentzat pixaohialak |
| - Lekaleak                 | - Helduentzat pixaohialak |
| - Olio                     | -                         |
| - Atuna / Sardiñak oliotan |                           |
| - Eztia                    |                           |



*15 urte saharar herriarekin elkartasunean  
15 años de solidaridad con el pueblo saharawi*

- IKASTETXERAKO
- MATERIALA
- Koadernoak
- Arkatzak, ezabagomak, zorroztekoak
- Margoak...
- BOTIKAK
- Etxeko botikiñetan izan ohi ditugun botikak
- Paracetamol
- Ibuprofeno
- Botika berezirik baduzu gurekin kontaktatu

Badakigu, gu guztion egoera ez dela erreza, baina Tolosaldeako familia bakoitzak kilo bat elikadura dohantzan eman dezakeela desio dugunez, guztion artean ahalik eta kilo gehien jasotzen saiatuko gara.

Mila esker

Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak